

## **Gazteei enplegua lortzen laguntzeko diseinatuta, 300 langabe baino gehiagok parte hartzen dute Gipuzkoako Bazkundearen VI. Lan Feria**

- *Azaroaren 2an eta 3an egingo den Enplegu Azokaren seigarren edizioa gazteei enplegua lortzen laguntzeko berariaz diseinatutako ekimena da, langabetuen kolektibo osoari irekia.*
- *Azokak Europako Gizarte Funtzaren finantzaketa izango du, Espainiako Ganberak Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren barruan sustatutako PICE Programaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bidez.*
- *Gipuzkoako 44 enpresak eta 300 langabe baino gehiagok parte hartuko dute ekitaldian; gehienak gazteak dira, beren lehen aukera profesionalaren edo enplegua hobetzearen bila.*
- *Parte hartzaileek 130 lan eskaintza baino gehiago ezagutzeko aukera izan dute Azokara joan aurretik. Enpresek alde aurretik argitaratu dituzte eta bi egun hauetan eskainiko dira.*

**Donostia- 2022ko azaroaren 2a** – Gipuzkoako Bazkundearen Lan Feria langile berriak eta lan bila dabiltzan pertsonak kontratatzeko interesa duten Gipuzkoako enpresen arteko topalekua da. Seigarren edizio hau azaroaren 2an eta 3an egingo da Gipuzkoako Bazkundean, eta 44 enpresa gipuzkoar eta 300 langabetu baino gehiago bilduko dira.

Azoka asteazkenean irekiko da, Ana Ugalde Gipuzkoako Bazkundeko zuzendari ordezkorearen eta Isaac Palencia Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteriako zuzendari nagusiaren eskutik.

Seigarren edizio honetan honako enpresa hauek hartuko dute parte:

Bexen Medical  
Ceit  
Deloitte  
Euskadimpleo  
Fagor Ederlan Group  
Grupo Orona  
Gureak  
Ikor sistemas Electrónicos  
Ingeteam Indar Machines  
Inzu Group  
Itari  
Katealegaia  
Lazpiur  
Matz-Erreka  
Oribay Group  
Plastigaur  
Salto Systems  
Salva Industrial  
SAPA  
Talleres Agui  
Viralgen  
Vibebiotech

Adecco  
Askora  
Asociación de Empresarios de Hostelería  
Gipuzkoa  
AXA Seguros  
Eroski  
ETT W-Zitap  
Eurofirms ETT Donosti  
Fundación Adecco  
Grupo Kirol  
Iman Temporing  
Kendu  
Laboral Kutxa  
Lanak Consultores  
Logikaline  
Mapfre  
Mercadona  
Nationale Nederlanden  
Nexian  
Orma infraestructuras  
Rural Kutxa  
Hotel Londres



CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

**Nota de Prensa**

Enpresek stand bat izango dute, eta bertan elkarrizketa laburrak egin ahal izango dituzte haiekin lan egiteko interesa duten pertsonekin. Enplegu-eskatzailleek, aldez aurretik, enpresek une honetan aktibo dituzten eskaintzak ezagutu ahal izan dituzte, beren interesekoak direnei aplikatuz. Azokan bertan, enpresekin topaketa bat egiteko eta euren CVa aurkezteko aukera izango dute.

Azokak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren laguntza du, eta Kualifikazio eta Enplegu Programa Integralaren (PICE) parte da. Programa hori Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du, Espainiako Ganberak Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren barruan sustatutako PICE Programaren bidez.

## **Kualifikazio eta Enplegu Programa Integrala – PICE**

PICE 30 urtetik beherako gazteak gaitzen eta lan-merkatuan sartzen laguntzen duen programa da. Programak Trebakuntza Planean eta Mugikortasun Planean parte hartzeko aukera ematen die.

Gaikuntza-plana gazteen neurrira egina dago, eta bertan izena ematen dutenak enplegu-poltsa baten parte dira, hala eskatzen duten enpresen kontratazio-beharrei erantzun ahal izateko. Planak lau fasetan banatutako ibilbidea du: orientazioa, prestakuntza, enpresetan esperientzia praktikoa izatea eta laneratzen laguntzea.

**Informazio gehiago:**

Jone Lacunza

**[jlacunza@camaragipuzkoa.com](mailto:jlacunza@camaragipuzkoa.com)**

943000300 / 685750111